



**Beñat Gaztelumendi**  
Bertsolaria

## Alfabetoak

**A**lfabetoak hizki gehiegi zeuzkala iruditzen zitzaidan umetan; «A» eta «B» banekien non kokatu baina nire hiztegian ez zegoen «C» zeraman hitzik. «Ñ»-arekin izaten nituen kome-riak, bazirelako nire izeneko hirugarren hizkia onartzen ez zuten teklatuak eta «zergatik» galdetzen nien gurasoei, zergatik ingelesek ez zeukaten «Ñ»-rik. Eta hizkuntzez ariko zitzaizkien nire belarri heziga-beei, baina nik ez nien tutik ere ulertzen: zabala zen nire mun-dua orduan, Añorgan hasi eta bukatzen zena, eta hizkuntza bakarra aski zitzaidan hura bizitzeko.

“Avenida”. Izen horretan kokatu nuen lehenengo aldiz “V”-a. Ez zen “etorbidea”. “Avenida” zen Donostiako kalerik doto-reenaren izena, banketxeak zeuden gunearena. Gogoan dut beti jakin-minez etortzen ginela hona, eta arraro begiratzten geniela pelikularen batetik atereak ziruditen trajedun eta gorbata-dunei. Gurasoak normalean baino isilxeago etortzen ziren “enkarguak” izeneko zeraren zerako zera horiek egitera, guk irakaslearenga-na hurbiltzeko eramaten ge-nuenaren antzeko pausajea-rekin. Niri arraroa egiten zitzaidan kale hau izenetik beretik hasita; lekuz kanpo sentitzen nintzen artean ulertzen ez nituen motibo-engatik.

Bizitzan, ordea, batzuetan une labur batzuk aski izaten dira alfabetoak hankaz gora jartzeko. Umetako gaixoaldi luze batean ospitaleko gela batean mugitu zitzaizkidan hizkiak lehenengo aldiz. Medikua bat etorri zen nola ote nengoen galdezka, baina nik gazteleraz ez neukan aski zehaztasun nire minaren nolakoa azaltzeko. Amari euskaraz azaldu eta hark egiten zituen itzultzaile lanak. Medikua al nengoen galdetu zuen eta baietz erantzun zion amak: eskolatua nengoela baina euskaraz egiten nuela lagune-kin, euskaraz etxean eta euskaraz klasean: gazteleraz irakurtzen banekiela eta be-rak esandakoak ulertzen ni-tuela, baina hizketarako ja-rriorik ez neukala. Eta ez kezkatzeko ere esan zion, zortzi urterekin jakin ez

arren, bizi ginen lekuan bizita, derrigorrean ikasi beharko nuela. Medikuaaren erruki begiradarekin akordatzten naiz oraindik.

Eskola handi batean hasi ginen handik urte batzuetara. Klaseak euskaraz izan arren, han ezagutu nituen lehenengo aldiz gazteleraz funtzionatzen zuen patio bat, pilotan euskaraz ari-tzen ziren lagun batzuk eta euskarazko musika eta liburuak iraungitako mundu baten azken aztarnatzat hartzen zituzten klasekide batzuk. Euskaraz hasi orduko barre egiten ziguten; “baserritarra” esaten zioten bertso eskolan zebilen edozein ka-lekumeri eta “aspergarria” euskarazko CD bat motxilan zera-man edonori.

**Eta gu ere nahasi ginen nerabe garaiko joera haiekin: guk ere ikasi genuen onartuak izateko besteak bezalakoak izan behar genuela; bizitzan gora egitea esaten zaion hori lortzeko hobe genuela gure umetako ahoskera ezkutatzeari; «guayagoak» ginela gaz-teleraz; irekiagoak, moder-noagoak, erakargarriago-ak. Ez dakit nerabazaroko konplexuak denok gaindi-tu ote ditugun.**

Eta hemen nago gaur, “V” eta guzti “Avenida” deitzen diogun kale honetan. Star-bucks bat zabaldu berri dute: kafea kartoizko edalontzi berdeetan eta kartoizko lan-kontratuak barraren beste al-dean. McDonald’s bat bada Bretxan; Burger King bat ere bai Bulebarrean. Laster Mer-cadona bat ere izango omen dugu Añorgan. Guk egindako hiriek egiten omen gaituzte gu ere modu batean edo bes-tean, baina ez dakit bada: “nortasuna” hainbeste aipa-tzen den garaiotan geroz eta antzekoagoak dira gure jan-tziak: hiriena, alfabetoare-nak eta gureak. Aspaldiko mediku haren begirada ha-rroarekin akordatu naiz, mundu guztiak bere hizkun-tzan egiten zuela uste zuena-ren begirada harekin. Eta ni-ri barrez hasten zirenero, oharkabean, beren konple-xuak estali nahian aritzen zi-ren klasekideekin ere bai. Ez baitago zabaltasuna imita-zioarekin nahastea baino gauza itxiagorik. •



«Avenida» deitzen diogun Donostiako kalean Starbucks bat zabaldu dute.